

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 140/2020 Erabakia, martxoaren 10ekoa. Onestea Elena Aulestiarte Laca andreak diputatu nagusiaren idazkaritzako konfiantzazko eginkizunak dituen behin-behineko langile postua uztea, praktiketako funtzionario izendatu izanagatik**

Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 8ko 432/2019 Erabakiaren bidez, Elena Aulestiarte Laca izendatu zen behin-behineko langileek betetzeakoa den diputatu nagusiaren idazkari lanpostuan (kodea: 1300.002) jarduteko. Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuaren otsailaren 27ko 133/2020 Foru Aginduaren bidez, Elena Aulestiarte Laca praktiketako funtzionario izendatu da, ondorioak 2020ko martxoaren 9tik aurrera sortuz.

Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubideari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 8.11 artikuluan eta Foru Kargu Publikoen Jarduna arautzen duen uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauaren laugarren xedapen gehigarrian jasorikoarekin bat etorriz, Foru Gobernu Kontseiluari dagokio diputatu nagusiaren edo dagokion foru diputatuaren proposamena entzun ondoren, foru aldundiko lanpostu zerrendan jasota dauden behin-behineko konfiantzako lanpostuak beteko dituztenak izendatzea eta kargutik kentzea.

Horregatik guztiagatik, diputatu nagusiak proposatuta, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 8.11 artikulua aitortzen dizkidan ahalmenak baliatuz, eta Foru Gobernu Kontseiluan gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu aztertu ondoren, honakoa

#### ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Elena Aulestiarte Laca, behin-behineko langileek betetzeakoa den diputatu nagusiaren konfiantzako idazkari lanpostutik (kodea: 1300.002) kentzea, praktiketako funtzionario izendatua izateagatik.

Bigarrena. Erabaki honek ondorioak izango ditu 2020ko martxoaren 9tik aurrera.

Hirugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko martxoaren 10a

*Diputatu nagusia*

*RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE*